

# Ebanjelizatzearen Elizbarrutiko Egitasmoa 2021-2026



## Deituak eta Bidaliak



Donostiako  
Elizbarrutia  
Diócesis de  
San Sebastián



# AURKIBIDE

Gotzainaren hitzak .....	5
Sarrera .....	9
Jarduera-hari nagusiak	
<b>1.</b> Parrokia elkartearen elizbarrutiko berrantolatzea	11
<b>2.</b> Liturgia eta otoitza .....	13
<b>3.</b> Elkartea eta sinodo izaera .....	17
<b>4.</b> Harrera .....	21
<b>5.</b> Pobrezia desberdinak .....	25
<b>6.</b> Bide-laguntza .....	27
<b>7.</b> Pastoraltza misiolaria .....	31
<b>8.</b> Kristau mezua jendeaurrean agertzea.....	35
Otoitza .....	39



# GOTZAINAREN HITZAK

## DEITUAK ETA BIDALIAK

Pastoral egitasmo oro da dei bati emandako erantzuna. Jesus piztuak apostoluei piztu ondoren agertutakoan esandako hitzen ondorio praktikoa da: «Aitak ni bidali nauen bezala, nik zuek bidaltzen zaituztet» (Jn 20, 21). Beraz, has gaitzen hau esanez: Pastoral egitasmo honek berekin dituen “deiak” eta “bidalketak” Hirutasun Santuagan errotuak daude. Hirutasun Santuagandik mundura bidalia izan zenak Berak bidaltzen gaitu gu Aitagandik jaso zuen egitekoa Espiritu Santuaren indarrez jarrai dezagun.

Baieztapen honen ondorio da Jesu Kristorekin harreman estu-estua izatearen garrantzia. Mahatsondoaren eta aihenen parabolak irudi ezin hobea eskaintzen digu hemen proposatzen dugun pastoral ekintzak sakramentu bizitzan eta otoitzean oinarritua egon behar duela konturatzeko: «Ni naiz mahatsondoa eta zuek aihenak. Norbait niri itsatsia badago, ni berari bezala, horrek fruitu asko emango du; ni gabe ezin baituzue ezer egin» (Jn 15, 5). Garbi dugu jaso dugun pastoral eginkizunak gure gaitasunak gaititzen dituela. Ezin dugu ezer egin Espiritu Santuaren graziaz ez bada, eta dena dezakegu indartzen gaituen Harengan (ik. Flp 4, 13).

Pastoral Egitasmoaren beste alderdi funtsezko bat izenburua pluraleko lehenengo pertsonan jarri izanean aurkitzen da: “Deituak eta bidaliaK”. Izan ere, alferrik dira norberekoitasun eta partikularismoak. San Paulok korintoarrei egindako deiak balio du gaur ere: «Alegia, nork bere aldetik honela omen dio: “Ni Paulorena naiz”, “Ni Apolorena”, “Ni Pedrorena”, “Ni Kristorena”. Zatitua ote dago, bada Kristo?» (1Ko 1, 12-13). Batasunaren dohaina ez da Pastoral egitamoaren fruitua bakarrik, Pastoral egitasmoa gauzatzeko baldintza baizik. Elizaren sakramentu izaera sakontzea beste modurik ez dago gure artean hainbesteko gogoz irrikatzen dugun batasuna iristeko. Ez gara gure ministeritzaren ezta pastoral eginkizun honen jabe, zerbitzari apal baizik. San Agustinek hala esan zuen indarrez beteriko esaldi honetan: «Ni, neu naiz, baina ez naiz neurea».

Deituak eta bidaliak izatearen artean bada erdibideko urrats bat: heziketa. Ebanjelioan oso garbi ikus daiteke hau: apostoluak Kristorekin bizi izan ziren deituak izan ondoren “apostoluen eskola” modukoan, eta bertan moldatu zuten beraien burua eta bihotza Jesu Kristorenaren antzera. Baina ez da bidaliak izan aurreko aldia bakarrik, bidaliak izan ondoren ere itzuli baitziren bizi izandakoa Jesusekin partekatuzera (ik. Lk 10, 1-20). Gure ikasle izaera ez dugu inoiz galtzen, ezta bidaliak garenean ere. Beraz, heziketa iraunkorra pastoral egitasmoko baten beste gakoetako bat da. Beharrezkoa dugu Jainkoaren Hitza, Eliza Katolikoaren Kristau-ikasbidea eta Elizaren irakaspenean sakon ezagutzea, gure fedearen arrazoibidea eman ahal izateko.

Azkenik, gure apostolutza garra izango da ebanjelizatze bulkada neurtzeko baliabide onena. Eliza ebanjelizatzeke da; ez du beste zentzurik. San Paulok garbi uzten digu hain ezaguna den esaldian, barru-barrutik ateratzen zaion asperen baten antzera: «Errukarria ni, berri ona hots egingoetz banu!» (1 Ko 9, 16). Jesu Kristorekin maiteminduta egotea da apostolutza gar horri zentzua ematen diena. Maiteminduta daudenek soilik maitemindu dezakete. Ez dezagun pentsatu ebanjelizatzearen gako erabakigarria komunikazio baliabideetan dagoenik (garrantzitsuak izanik ere eta pastoral egitasmoan

aintzakotzat hartu beharrekoak), maitemindutako bihotzaren testigantzan baizik. Maitemindutako bihotzak, aurkitu duen altxorraren berri ematen dio munduari (ik. Mt 13, 44).

Kristau bizitzaren testigantzak duen lehentasunaz ari gara. Garinarekin ebanjelizatzen dugu, esaten dugunarekin baino lehenago. Ahaztu gabe, hitzari laguntzen dioten keinuak, ezinbestekoak direla sarritan ebanjelizatzea eraginkorra izateko. Keinu horietako asko era indartsuan mintzo dira Elizaz: azkenekoen aldeko apustua, era askotara sufritzen dutenei era praktikoa eta eraginkorrean laguntzea, zuzentasunaren eta bakearen alde lan egitea, e.a.

Mahatsondoaren eta aihenen irudia aipatu dut lehen, gure Pastoral egitasmoa oinarritzeko irudi indartsu bezala. Jaiotzaz itsua izanik Jesusek ikusmena berreskuratu zion haren esaldiarekin bukatuko dut orain: «Dakidan gauza bakarra hauxe da: itsu nintzela eta orain ikusi egiten dudala» (Jn 9, 25). Aldarrika dezagun munduaren aurrean Jauna handia izan dela gurekin eta pozik gaudela (ik. 125. salmoa).

+ Jose Inazio








# SARRERA

Duela bi urte ekin genion eskuartean dugun 2021-2026rako Ebanjelizatzearen Elizbarrutiko Egitasmo hau prestatzeari. Bi urtez, ilusio eta ahalegin handiz egindako lana da eta, aldi berean, korapilatsua, Covid-19 delako pandemiak ekarritako egoera zela eta.

Elizbarrutiko egoera, gizartean eta eliz elkartean aztertu ondoren, Jainkoaren Hitzaren argitan eta *Kanpora irtengo den Eliza* deritzan marko pastoral oinarri harturik, bi urtetan zehar Ebanjelizatzearen Elizbarrutiko Egitasmo honetako Jarduera-hari nagusiak eta Egitasmo hori aurrera eramateko Ebanjelizatze ekintzak zein izan daitezkeen hausnartzen eta markatzen ari izan da Elizbarrutiko Pastoral Kontseilua. Ziur gaude, egindako lana ez dela gure ahalegin hutsen emaitza izan. Eliz bizitzari eragiten dion Espiritu Santua gurekin ere izan da une oro, indar emanez eta inspiratuz une eta toki bakoitzean.

Ebanjelizatzearen Elizbarrutiko Egitasmo honen xedea honako hau da: jarrerak sustatzea eta ekintza-hariak aurkeztea. Hari hauek erreferentzia izango dira Elizbarruti osorako: Kuria, artziprestalde, parrokia, ebanjelizatze-zentro... Hauetako bakoitzak, bere bereizkuntzen arabera, zein ekintza ebanjelizatzaile antolatu zehaztuko



du lan-urte bakoitzerako. Horregatik, dokumentu honen asmoa hau da: Ebanjelioa hots egiteko misioa bizkortu, gogo berri eta hobetzekoa. Elizbarruti osoaren erantzunkidetasuna ezinbestekoa da horretako.

Ebanjelizatzearen Elizbarrutiko Egitasmo honen izenburuak berak, *Deitnak eta Bidaliak*, oroitarazten digu egiazko pastoral misiolariari gogoz heldu behar diogula, eta Elizak kanpora atera beharra duela, gizartearen eta pertsonen periferietan jarduteko. Egoeraz jabeturik egotea eskatzen du aurrena pastoral misiolari honek eta, aldi berean, itxaropentsu izatea, gure ingurumarian Ebanjelioa hots egiteko dugun zailtasunaz oharturik. Jarrera misiolari honek, ordea, jarrera uzkurak gainditzea eskatzen du, Ebanjelioaz fidatzea, giza-kia salbatzeko eta askatzeko indarra duela sinestea eta hori aditzera eman eta ikusgarri egitea.

Beharrezkoa izango dugu, bada, erabat konbentziturik egotea, zinezko sinestedun izan beharra dugula, ebanjelizatze-lana nola egin pentsatu aurretik. Bera bezala eta Berarekin bizitzera egiten digu dei Jesusek lehenbizi. Horretako, garrantzitsua da geure espiritualtasuna zaindu eta elikatzea, elkarri laguntzeko moduak bilatzea, eta horrela gaur egungo egoera sozio-kulturalari aurre egiteko eta ebanjelizatze-misioaren urgentziari erantzuteko beharrezko diren jarrerak sendotzea.

Argituko ahal digu Ebanjelizatzearen Elizbarrutiko Egitasmo honek ebanjelizatze-misioa aurrera eramateko bidea eta sustatuko ahal du Elizbarruti osoaren lankidetzeta eta atxikimendua. Hala nahi genuke.

# 1

## Parrokia elkartearen elizbarrutiko berrantolatzea

Parrokia elkarten elizbarrutiko berrantolatze-bidean urratsak egitea, pastoraltzako oraingo lehen-tasunei eta beharrei egoki erantzun diezaien.

- 1.** Ibilbidea eratzea parroketako izaeraren diagnosia egiteko, egiazko izaera bereiztea eta beharrezko neurri egokiak hartzea.

*Gobernu-taldea Artzizpreste Kontseiluaren laguntzaz.*

- 2.** Gobernu-taldeak proposatutako ibilbidea martxan jartzeko konpromisoa hartu eta horretan laguntzea.

*Elizbarrutiko Kuria, artzizprestaldeak eta parrokiak.*

# 2

## Liturgia eta Otoitza

Liturgia, bereziki Eukaristia, eta otoitza kristau-bizieraren iturritzat hartzea; horretarako hauek hartuko dira kontuan:

## 2.1. Liturgi ospakizuna zaintzea.

1. Heziera eskaintzea liturgiaren espirituan sakontzeko.

*Elizbarrutiko Kuria, artziz-  
prestaldeak eta parrokiak.*

2. Liturgiaren alderdi desberdina-  
k zaintzea: parte-hartzea,  
zeinuak eta sinboloak, eder-  
tasuna, elkartasuna eta elkar-  
tea...

*Elizbarrutiko Kuria, artziz-  
prestaldeak eta parrokiak.*

3. Jainkoaren Herriari jakinaraz-  
tea, liturgia denon zeregina  
dela, eta jarrera baikorra har-  
tzera dei egitea.

*Parrokiak.*

4. Liturgia-taldeak indartzea egin-  
kizun hau betetzeko gai izan  
daitezen; edota liturgia-talderik  
ez den parroketan horrelako  
bat sortu ote daitekeen ikustea.

*Parrokiak.*

## 2.2. Hitzaren ospakizuna zaintzea presbiterorik ez denean.

1. Heziera-prozesu bat antola-  
tzea, presbiterorik ez denean  
Hitzaren ospakizunak zuzent-  
zeko gai izango diren pertso-  
nak prestatzeko.

*Elizbarrutiko Kuria.*

**2.** Presbiterorik ez denean, Hitzaren ospakizunak zuzentzeko ardura izango duen taldea sortzea artzippingrestaldean, eginkizun hori era koordinatuan egingo duena, eta zerbitzu hori betetzeko beharrezko duten heziera ematea.

*Artzippingrestaldeak.*

**3.** Artzippingrestaldeko talde hau osatuko duten pertsonak zaindu eta bide-laguntza espirituala nahiz pastoral eskaintzea.

*Artzippingrestaldeak.*

**4.** Jainkoaren Herria egoki ohar-tarazi, berri eman eta heztea, zer den eta zer esan nahi duen Hitzaren ospakizunak.

*Parrokiak.*

## 2.3. Elkarteko otoitzerako guneak sortzea.

**1.** Egingo diren bilera guztietan eta emango diren materiale-tan, otoitzerako gunea kon-tuan izatea, bereziki elkarteko otoitzerako.

*Elizbarrutiko Kuria, artzippingrestaldeak eta parrokiak.*

- 2.** Otoitz pertsonal eta elkarteko esperientziak eta guneak zain-  
tzea, adibidez: gogo-jardunak,  
erretiro-egunak, elkarretara-  
tzeak...
- 3.** Elkarteko otoitza sustatzea,  
horretarako denbora emanaz,  
guneak zainduz, egitarau bi-  
hurtuz eta era sistematikoan  
eginez (Gorespenak, Bezpe-  
rak... errezatu), eta Jainkoaren  
Hitzaren inguruan otoitz-tal-  
deak eratzea.
- 4.** Otoitzaldi ekumenikoak eta  
erlijio artekoak antolatzea.

*Elizbarrutiko Kuria, artzipres-  
taldeak.*

*Parrokiak.*

*Elizbarrutiko Kuria eta artzi-  
prestaldeak.*



# 3

## Elkartea eta Sinodo izaera

Elkartasunean eta sinodo-izaeran haztea, era honetan:

### 3.1. Eliz batasuna lantzea eta elkartasunari kalte egiten diona ezabatzea elkarketa-kultura sustatuz.

1. Eliz elkartasunaren aldeko ekimenak aztertu eta landuko dituen batzordea sortzea.

*Elizbarrutiko Kuria.*

2. Ebanjelizatze-misioa egin ahal izateko, beharrezko eta premiazko dela eliz elkartasuna sentiaraziko duten ekimenak sustatu eta horietan parte hartzea.

*Elizbarrutiko Kuria, artziz-  
prestaldeak eta parrokiak.*

### 3.2. Bokazio eta karisma desberdinak onartu eta aintzat hartzea, Jainkoaren Herri osoa ebanjelizatze-misioan sartua egotea eta erantzunkide izatea erraztuz.

1. Bideak eratzea bokazio eta karisma desberdinak ezagutuak eta aintzat hartuak izan daitezen eta gure Elizbarrutiko bizitzan eta misioan sartuak egon daitezen.

*Elizbarrutiko Kuria, artziz-  
prestaldeak eta parrokiak.*

2. Heziera-prozesuak, ospakizunak, elkarketak... eskaintzea, Jainkoaren Herri osoa (apaiz, laiko, bizitza sagaratu eta mugimendu laiko...) elizbarrutiko bizitzan eliztar direneko eta eliz eginkizunetan parte har dezaketenaren zentzua indartzen laguntzeko.

*Elizbarrutiko Kuria.*

- 3.** Bilerak eratzea artziprestaldeko era desberdineko pastoralgile, talde, erakundeen... artean, elkar ezagutu, animatu, esperientziak trukatzeko eta elkarlanean aritzeko. *Artziprestaldeak.*
- 4.** Artziprestaldeko Pastoral Kontseiluan ordezkatuak egon daitezela bizitza sagaratu eta mugimendu laikoak, eta ebanjelizatze-misioan parte hartzera deituak izan daitezela. *Artziprestaldeak.*
- 5.** Jainkoaren Herria animatzea parrokiako bizitzan eta ebanjelizatze-misioan parte hartzean bokazio eta karisma desberdinekin. *Parrokiak.*

### 3.3. Ebanjelizatze-elkarteen artean: parrokia, ikastetxe, erlijioso-erlijiosen elkarteen... artean koordinazio handiago lortzea.

- 1.** Bikaritza desberdinak, artziprestaldeak eta parrokiak, elkar hobeto ezagutu eta koordinaturik egoteko, beren presentzia, elkarren arteko harremanak eta koordinazio pastoralak lortzeko bideak eraberritzea edota sortzea. *Elizbarrutiko Kuria, artziprestaldeak eta parrokiak.*

- 2.** Ebanjelizatze-misioa ekintzara eramateko, horretan sarturik dauden elkarte ebanjelizatzaileak lankidetzara eta koordinazioa lortzen saiatzea.
- 3.** Kristau Sarbideko Direktorio bat ezartzea, elizbarruti oso-rako kristau sarbideko sakramentuak prestatzeko eta ospatzeko irizpideak ezarriko dituen.
- 4.** Artziprestaldeko nahiz Parrokiako Pastoral Kontseiluko kideen artean kontseiluko izatearen eta ardurakide izatearen zentzua sendotzea.
- 5.** Hurbil dauden parrokiaren arteko koordinazioa eta lankidetzara erraztea denei dagozkien egitasmoetan (pastoral barrutiak).

*Elizbarrutiko Kuria, artziprestaldeak eta parrokiak.*

*Elizbarrutiko Kuria.*

*Artziprestaldeak eta parrokiak.*

*Parrokiak.*

# 4

## Harrera

Harrera gure elkarteetako gune nagusi bihurtzea;  
horretarako hauek hartuko dira kontuan:

## 4.1. Harrera egiteko gure era, denbora eta leku gehiago eskainiz.

- 1.** Ebanjeliozko harrera egiteak duen garrantziaz sentibera bihurtzea.

*Elizbarrutiko Kuria, artzizprestaldeak eta parrokiak.*

- 2.** Ebanjeliozko harrera egiten lagunduko duten materialak (tailerrak, dinamikak...) pres-tatu eta zabaldu.

*Elizbarrutiko Kuria.*

- 3.** Ebanjeliozko harrera egiten laguntzeko prestatuak izan diren materialak (tailerrak, dinamikak...) erabili eta landu ditzate-la pastoralgileek, harrera hori beren ekintza bereziaren eremuan ahalik hurbilekoena izan dadin saiatuz.

*Elizbarrutiko Kuria, artzizprestaldeak eta parrokiak.*

- 4.** Norberaren esperientziaren arabera, harrerari buruzko «ohitura onak» pastoralgileek beren artean partekatzea.

*Elizbarrutiko Kuria, artzizprestaldeak eta parrokiak.*

## 4.2. Ateak zabalik dituen Eliza sustatzea, ahal den neurrian.

- 1.** Plangintza bat prestatzea atek zabalik dituen Elizaren proposamena ekintzara eramateko: tenplua denbora luzeagoan zabaltzea, ekimen pastoral berriak asmatzea, etab.

*Gobernu-taldea, Artzizpresteen Kontseiluaren laguntzaz.*

- 2.** Beste elizbarrutietan egiten ari diren esperientzia pastoralak ezagutu eta aztertzea, proposamena eratzeko argitasuna izan daitezen.

*Gobernu-taldea, Artzizpresteen Kontseiluaren laguntzaz.*

### 4.3. Etorkinak.

- 1.** Sentiberatasuna sortzea migrazio-errealitateari buruz eta etorkinei senidetasunezko harrerera egiteak duen garrantziari buruz.
- 2.** Etorkinek dituzten era askotako beharrei (premia materialei, harremanekikoei, espiritualei...) erantzungo dien harrera, erabatekoa eta osoa izango den harrera, eskaintzea.
- 3.** Etorkinak gure parroki elkar-teetako bizitzan sarturik egon ahal daitezen bideak zabaltzea.

*Elizbarrutiko Kuria, artzizprestaldeak eta parrokiak.*

*Elizbarrutiko Kuria, artzizprestaldeak eta parrokiak.*

*Elizbarrutiko Kuria, artzizprestaldeak eta parrokiak.*





# 5

## Pobrezia Desberdinak

Gaur egun aurrean ditugun pobrezia desberdinei erantzutea; horretarako hauek hartuko dira kon-tuan:

## 5.1. Covid-19aren pandemia dela-eta kaltetuak izateko edota kalte larriagoa izateko zorian daudenak.

**1.** Diru-sarrerarik gabe edota oso murriztuekin gelditu diren pertsona eta familiei laguntzea.

*Elizbarrutiko Kuria, artziki-  
prestaldeak eta parrokiak.*

**2.** Etxebizitzarik gabeko pertso-  
nei arreta jartzea, bai babesle-  
kuari eta janariari dagokionean,  
baita kalekoei laguntasuna eta  
zuzeneko ekintzak eskaintze-  
ari dagokionean ere.

*Elizbarrutiko Kuria.*

**3.** Bakardadean dauden eta beren  
ardurapean adin txikiko hau-  
rrak dituzten emakumeei arre-  
ta jartzea.

*Elizbarrutiko Kuria.*

**4.** Kanean eta inoren laguntza-  
rik gabe dauden gazteei arreta  
jartzea.

*Elizbarrutiko Kuria.*

**5.** Pobrezia espiritualaren arreta.

*Elizbarrutiko Kuria.*

## 5.2. Sozio-karitate alorreko laguntzailearen irudia eraberritu, indartu eta sendotzea.

**1.** Sozio-karitate alorreko lagun-  
tzaileak Elizan izan behar duen  
nortasuna eta egikera ezagu-  
tua, sakondua eta bereganatua  
izan dadin heziera eskaintzea.

*Elizbarrutiko Kuria.*

**2.** Sozio-karitate alorreko lagun-  
tzaileak teknika aldetik treba-  
tzea, esku artean duten eginki-  
zuna betetzeko.

*Elizbarrutiko Kuria.*

6

# Bide- languntza

Bidelaguntzaren pastoraltza sustatzea; horretarako hauek hartuko dira kontuan:

## 6.1. Bidelagun izan daitezkeen pertsonak prestatzea.

**1.** Bide-laguntasun eskola sortzea.

*Elizbarrutiko Kuria.*

**2.** Pastoralgileak bide-laguntzaren garrantziaz ohartaraztea eta horretarako prestatzea, bai beren bizierari dagokionean, baita egiten ari diren lan pastoralari dagokionean ere.

*Elizbarrutiko Kuria, artziki-prestaldeak eta parrokiak.*

**3.** Pastoralgileak laguntzarako prestatzea, egin behar duten lan pastoralaren arabera.

*Elizbarrutiko Kuria, artziki-prestaldeak eta parrokiak.*

**4.** Jainkoaren Herrian bide-laguntzaren praxia sustatzea, nork bere fedea biziberritu eta sakontzeko.

*Elizbarrutiko Kuria, artziki-prestaldeak eta parrokiak.*

## 6.2. Kristau Sarbideko prozesuetan bide-laguntza barneratzea.

**1.** Argibideak eskaintzea Kristau Sarbideko prozesuetan bide-laguntza osagai esplizitua eta sistematikoa izan dadin.

*Elizbarrutiko Kuria.*

**2.** Kristau Sarbideko prozesuetan bidelagun izateko ardura duten pastoralgileen prestaera zaintzea.

*Elizbarrutiko Kuria, artziki-prestaldeak eta parrokiak.*

### 6.3. Gazteen eta familien bidelagun izatea.

- 1.** Gazteen eta familien bidelagun izateko modua aztertzea, hauek aurkitzen diren esparru desberdinetan (ikastetxeetan, parroketan...).

*Elizbarrutiko Kuria, artziz-  
prestaldeak eta parrokiak.*

- 2.** Gazteak eta familiak ohartaraztea, Kristoren jarraipenean bizitzeko bidelaguna izateak duen garrantziaz.

*Elizbarrutiko Kuria, artziz-  
prestaldeak eta parrokiak.*

- 3.** Esperientziak, materialak, denborak... eskaintzea bide-laguntza egin ahal izateko, esate baterako, gogo-jardunak, erretiroak...

*Elizbarrutiko Kuria, artziz-  
prestaldeak eta parrokiak.*

### 6.4. Gaixoaldi, bakardade nahiz heriotza baten ondorengo atsekabe-aldiko bide-laguntza.

- 1.** Bide-laguntzaren beharraz ohartaraztea, gaixoaldia, bakardadea edota heriotza baten ondorengo atsekab-ealdia denean.

*Elizbarrutiko Kuria, artziz-  
prestaldeak eta parrokiak.*

- 2.** Aipatu egoerak direnean, ondo pentsatutako erantzun sistematikoa eman ahal izateko, ahalbideak aztertu eta egokiak diruditen erabakiak hartzea.

*Elizbarrutiko Kuria, artziz-  
prestaldeak eta parrokiak.*



# 7

## Pastoraltza Misiolaria

Pastoraltza misiolaria garatzea Ebanjelioaren testigantza eta aldarrikapena sustatuz; horretarako hauek hartuko dira kontuan:

## 7.1. Elizara hurbiltzen diren helduak.

- 1.** Artziprestalde bakoitzean helduen Katekumenotzako ibilbidea eskaintzeko ahalbideak aztertu eta ezagutaraztea.

*Elizbarrutiko Kuria, artziprestaldeak eta parrokiak.*

- 2.** Helduak lehenengo aldiz edota berriro Kristau Sarbideko katekesian parte hartzera animatzea.

*Elizbarrutiko Kuria, artziprestaldeak eta parrokiak.*

- 3.** Hainbat arrazoirengatik parrokiara hurbiltzen diren helduei, lehen iragarpeneko ekimenean parte hartzera animatzea eta parrokiako bizitzan integratzea.

*Parrokiak.*

## 7.2. Gaztetxo eta gazteak.

- 1.** Gaztetxo eta gazteekiko pastoralta indartzea, parrokian, ikastetxeetan eta Unibertsitatean.

*Elizbarrutiko Kuria, artziprestaldeak eta parrokiak.*

- 2.** Testigantza eta aldarrikapen hau erarik egokienean eta argi eta garbi nola adierazi aztertzea.

*Elizbarrutiko Kuria, artziprestaldeak eta parrokiak.*



### 7.3. Kristau-bokazioaren eta bokazio berezien edertasuna erakustea.

1. Kristau Sarbideko katekesi-ibilbide guztietan kristau-bokazioaren eta gainerako bokazio berezien aurkezpena egitea eta zaintzea.

*Elizbarrutiko Kuria, artzizprestaldeak eta parrokiak.*

2. Bokazio-bereizmenarako elizbarrutiko ibilbidea eskaintzea, bakoitzak duen bokazio berezia aurkitzen laguntzeko.

*Elizbarrutiko Kuria.*

### 7.4. Elizaren alderdi unibertsala (Ad Gentes) eta munduaren hegoaldeko Eliza partikularreki-ko lankidetza.

1. Hegoaldeko herrialdeetara misiolariak eta lankideak bidaltzeari bultzada ematea, heziketa eta bereizmen-prozesu egokiak proposatuz.

*Elizbarrutiko Kuria.*

2. Hegoaldeko herrialdeetan egitasmo pastoralak eta garapen sozialekoak egintzara eramatea, ondasunen kristau-banaketa proposatuz.

*Elizbarrutiko Kuria eta parrokiak.*

3. Sentiberatze-egitasmo eta kanpainak garatzea, gure artzizprestalde eta parrokietan solidaritate-kontzientzia sortzea eta gure kristau-elkartetan heziketa egokia eratzea Elizaren alderdi unibertsalera zabalik egoteko.

*Elizbarrutiko Kuria eta parrokiak.*



# 8

## Kristau Mezua Jendeaurrean Agertzea

Kristau-mezua gizartean azaltze-ekintza, bereziki:

## 8.1. Jainkoaren Erreinua sustatuz, giza eskubideak, justizia soziala, bakea eta guztion etxea zaintzen.

- 1.** Gizarteko bidegabekeria eta desberdintasun-egoerak salatzea eta desagerraraztea, beste elkarte eta erakunde batzuekin lankidetzan arituz.
- 2.** Laikoaren konpromisoa bultzatu eta sustatzea gizartean eta bizitza publikoan.
- 3.** Elizaren Doktrina Sozialean sakontzea, gizartean modu ebanjelikoan eragiteko.

*Elizbarrutiko Kuria, artziki-prestaldeak eta parrokiak.*

*Elizbarrutiko Kuria, artziki-prestaldeak eta parrokiak.*

*Elizbarrutiko Kuria, artziki-prestaldeak eta parrokiak.*

## 8.2. Edertasunaren alderdiari lehentasuna emanaz, hori gizartean presente egiteko eta gizartearekin elkartzeko bide izan dadin.

- 1.** Arte-adierazpen desberdinek (musikak, pinturak, zinemak, dantzak...) eta naturak ere edertasunaz gozatzeko ematen duten egokiera baliatuz, ebanjelizatze-ekintzak sustatzea.

*Elizbarrutiko Kuria, artziki-prestaldeak eta parrokiak.*

- 2.** Sare sozialetan Ebanjelioaren berri emateko eta gaurko gure mundu honetan egokiak eta esanguratsuak izango diren pastoraltzako materialak sortzeko (argitalpenak, horma-irudi edo kartelak, parroki orria...) prestakuntza antolatu eta eskaintzea.

*Elizbarrutiko Kuria.*

- 3.** Herriaren erlijio-ohiturak fedearen benetako adierazpen eta ebanjelizatzeko baliabide den heinean, dituen balioak aitortzea, herri-ospakizun horietan suma daitekeen ebanjeliozko edertasuna azpimarratuz.

*Elizbarrutiko Kuria, artziziprestaldeak eta parrokiak.*

### **8.3. Kristau-mezua urrutiratu eta axolagabeen artean aldarrikatuz.**

- 1.** Elkarketa- eta elkarrizketa-guneak bideratzea, sinesteari eta ez-sinesteari buruz, eta jakintza, filosofia eta fedeari buruz.

*Elizbarrutiko Kuria, artziziprestaldeak eta parrokiak.*

- 2.** Denen interesekoak diren arazo sozialei buruz (ekologia dela, kontsumoa, justizia, demokrazia, etab.) elkarketa- eta elkarrizketa-guneak bideratzea.

*Elizbarrutiko Kuria.*

- 3.** Elkarketa- eta elkarrizketa-gu-neak bideratzea espiritualita-tea gai harturik.

*Elizbarrutiko Kuria.*

## 8.4. Sare sozialak, teknologia berriak eta hedabideak erabiliz.

- 1.** Gu geu konturatzea, Elizaren jarduera orok «balio soziala» duela eta hori ezagutarazi egin behar dela sare sozialak eta he-dabideak erabiliz.

*Elizbarrutiko Kuria, artzji-prestaldeak eta parrokiak.*

- 2.** Komunikaziorako egitasmo estrategikoa eratzea, barne-ko eta kanpoko komunikazio oso eta koordinaturako, hain zuzen.

*Elizbarrutiko Kuria.*

- 3.** Egitasmo hau burutu ahal iza-teko laguntzak eta bidelagun-tza eskaintzea elizbarrutiko zerbitzu desberdinei eta pa-rrokiei.

*Elizbarrutiko Kuria.*

# OTOITZA

## DEITUAK ETA BIDALIAK

Jauna, Zuk deitzen gaituzu;  
gure lankidetzan nahi duzu misiorako  
eta ez zaude gu perfektuak izan zain  
abian jar gaitezen.  
Horregatik bilatzen zaitugu otoitzean,  
ez mundutik isolatzeko,  
senideak nola zerbitzatu behar ditugun  
zure Hitzetik ikasteko baizik.  
Irakats iezaguzu,  
hainbeste soinuren erdian  
zure ahotsa bereizten.  
Lagun iezaguzu,  
gurekin eta gizadi osoarekin idatzi nahi duzun  
maitasun historiaren protagonista izaten.  
Jauna, zure hitzak bidalita eta  
zure Espirituak lagunduta,  
utz diezaiogula guztia berritzen  
eta eraldatzen duen Espirituaren  
graziari guri laguntzen.  
Amen

